

202. zk.

Bigarren aroa

Apirilak 2
2013

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajeak

Zabaltza plazako
litxarrerria kioskoak 40
urte bete ditu



Argoiak Elkarteak:
emakumeak plazara



Kirolak

Super Amara BAT,
sekulako sasoiak



Lidergo Ekintzaile graduiko ikasle talde bat.

Elkarrizketa: Luxio Ugarte, Enpresagintza Fakultateko (Mondragon Unibertsitatea) irakaslea eta MIKeko ikertzailea

“Gazte ekintzaileak behar ditugu”

◀ Kinka ekonomiko honetatik ateratzen garenean lehiakor izateko prestatu behar dugu

- 7 Elkartek **Argoiak**
- 11 Gaztea **Scooter-aren lilura**
- 12 Haurren lanak **Txingudi Ikastola**
- 14 Gazte informazioa
- 15 Kultur agenda



La agrícola
J A T E T X E A

Eguneko menuak, osteburukoak, karta,
mota guztietako ospakizunak

Alzukoitz, 1. IRUN Tel: 943 244 118

Editoriala

18 urte, 201 zenbaki, 6.432 orrialde. Iruneroko idazlaritzako argia iaz itzali zen. Orain berriro piztu da. Irungo euskarazko herri aldizkaria berrituta eta indarberrituta datorkigu plazara.

Urtebeteko tarte honetan Irunero ez da egun batez ere baztertutako proiektu bat izan, egunero urrats txiki bat eman delako ostera argia ikus zezan. Prentsa gogor jo duen kinka ekonomikoa gora behera, lekukoa jaso eta aurrera jarraitu behar zen. Bide honetan badira giltzarri izan diren bi hitz: borondatea eta euskara. Biak ala biak uztertuz -eta sentimendu eta burugogorkeria pixka bat gehituz- Iruneroren bigarren aroa hasi da. Hemendik aurrera hamabostekaria izango da, kolorez eta dohainik.

Honaino iritsi ahal izateko aletxoak jarri duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki Irungo Udalarin zein hainbat kolaboratzaile eta merkatariei, horien laguntza gabe lerro hauek amets hutsa lirateke eta.

Irunero plazan da eta zabalik. Irungo euskaldunei gomita luzatu nahi diegu parte har dezaten iritzi artikulatuak edo bestelako kolaborazioak bidaliz. Gure hirian ongi sustraitutako aldizkaria izango bada herritarrek elikatutakoa beharkoduelako.

Bigarren aroa hasi da. Egin dezagun topa!



Yurre Ugarte

ordaintzeko erabakia asteko egun arrunt bat izanez gero. Ahaztu lagunek USB batean pasatu dizkizuten filmak, alboratu DVDtan daukazun telesail kuttunak, bilduma merkeetan erosi dituzun DVDak edota sarean une oro ikusi ahal duzun edozein formatoko fikzio. Filmak ikusteko pantailarik egokienan, alegia, pantaila handi-erraldoi batean ikusi nahi duzu gutxienez bizitza bezain handia den istorio bat, oxala bizitza bera baino handiagoa den istorio bat (larger than life, diote ingelesez). Kolon ibilbidea goitik behera zeharkatzen duzularik, "eskale" deitzen diegun bost pertsonen diru eske jarduten dute ibilbidearen alde batean; pareko espaloian ere, beste bost pertsona diru eske dabilta. Horiek egunero ikusten dituzun eszenak direnez, ez zara ezertan pentsatzen hasten eta aurrera egiten duzu abenturatako filmea omen den Life of Pi edo Piren bizitza-z gozatzeraz.

Filmak kontatzen dizu nola mutiko batek bizirau-

Pi-ren bizitza (eta gu guztiona)

ten dituen 227 egun Bengalako tigre batekin hondoratutako itsasontziaren salbatzalupa batean Ozeano Barearen erdian. Tigrearekin bakarrik geratu aurretik, hiena baten, orangutan baten eta zebra baten konpainia zeuzkan. Mutikoa animalien artean bizirauten saiatzen den bitartean, hienak orangutana eta zebra akatzen ditu. Gero, tigreak akatuko du hiena. Tigrea eta mutikoa aurrez-aurre: animalien erreinuko erregea eta gizakien erreinuko gaztea. Piztia basatiaren begirada eta gizaki gaztearen begirada oraindik garbia. Bizi sena bor-bor bieran, bakoitza bere premiekin. Mutikoa ausartzen da begiratzeraz tigrearen begien hondoraino; bizirauteko, saiatzen da hura domatzen. Biek gauza bera "nahi" baitute azken finean, jan, bizi. Istorio on batek sorrarazten duen harriduraz eta liluraz betea dago filmea.

Etixerako bidean, pentsatzen duzu zein salbatzalupa handian goazen guztiok (auskalo nora) edonor jateko prest dagoen bankari-ekonomia basanimaliaren konpainian. Domatua geneukala iritzi, jaten eman diogu. Eta oraingo, piztiaren paparrari besterik ez diogu begiratu.

Mola Jeneralaren parkea

Gernikako Arbola parkea

Irun atzo Irun gaur



Arg: Jose Mari Castillo



Arg: Jose Mari Castillo

Gernikako Arbola parkea Iparralde hiribidean dago, Ertzainetxearen ondoan.

1979. urtean Udalak izen hori jartzea erabaki zuen. Handik bi urtera Irungo Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari Gernikako Arbola 5 muskil eskatu zizkion, parke horretan landatzeko.

1987an, Espainiako Gerra Zibilaren 50. urteurrenaren oroigarri, parkearen erdian burdinazko eskultura bat jarri zen, Gernikako Arbola sinbolizatzen duena, Xabier Lakak egina.

1937. urtean Udalak Mola Jenerala plaza deitzea erabaki zuen. Emilio Molak II. Errepublikaren aurkako estatu kolpea Nafarroatik prestatu zuen. 1936ko irailaren 5ean Irun tropa frankistek mendean hartu zuten, Mola buruzagi zela.

Jeneralaren omenez plazan jarri zen bustoa 1980an gauetik goizera desagertu zen.

Informazioa: Jose Monjeren *Irungo kaleen izenak* liburutik. Argitaratzailea: Luis de Urantz Kultur Taldea.

Aldizkari hau Irungo Udalak diruz laguntzen du



Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba

Kirolak: Mikel Mancisidor

Euskara zuzentzailea: Xabier Kerexeta

Publizitate kudeatzaileak:

Sonia Garcia Olazabal, Rosa Borrallo,

Lara Cañizo

Argitaratzailea: Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23

20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

irunero@irunero.com

www.irunero.com

“Euskaldunok gure sormenari esker aurrera aterako gara”

“Quebec oso urruti dago!!”, esaten zion familiak gaztetan Kanadara ikastera joan zenean. Aurrera aterako bagara mentalitatea aldatu beharko dugula dio; ekintzaileak izan eta mundu globalizatu honetako edozein tokitan lan egiteko prest egon beharra dago. Luxio ziur da kinka ekonomiko larri honetatik aterako garela; baina enpresen arteko asoziazionismoa bultzatzea ezinbestekoa da, baldin eta lehiakor izango bagara.

- Zein da Irungo ekonomiaren egitura?

Duela urte pare bat Mondragon Unibertsitatean bertako industriaren eta ekonomiaren diagnosi bat egin genuen. Gure jatorriko eskualdean ez bezala (Deba Garaia), hemen enpresen % 95 txikiak dira eta historikoki modu independentean lan egin izan dute. Enpresa txiki hauek handien menpe daude, oraindik ezin dutelako mundu globalean lehiatu. Lehiakor izateko elkartuta egon behar dute; horrela, berrikuntza landu ahal izango dute, administrazioari dirua eskatu, horniduren erosketa merkeagotu... Mondragon Unibertsitatea, erakundeekin elkarlanean, puntu ahul horiei aurre egiteko estrategia gauzatzen ari da jada. Eskualdeko ekonomia-eragile guztiok norabide horretan lanean dihardugu.

- Zein dira irundarren puntu sendoak egoera ekonomikoari aurre egiteko?

Ekintzaile asko dago, jende auzarta eta ideia onekoak. Aduanen krisiaren ondoren enpresa asko sortu ziren; baina estrategia bat falta zaie, txikiak izaki, horren diseinua egiteko denborarik ez dutelako, eguneroko lanak ez baitie tarterik uzten. Egitura bat sortu behar da elkarrekin indartsuago bilakatzeko.

- Zer lortu da orain arte?

Dagoeneko esperientzia pilo-

tuak abian jarri ditugu. Hezkuntza institutuak harremantzen jarri dira enpresekin proiektuak garatzeko. Mondragon Unibertsitateak bere gain hartu du hibridazio egitasmoa: enpresa bi edo gehiagoren artean beste bat sortzean datza. Xede horretarako diru laguntzak eskatu ditugu.

Irun Ekintzan delakoa ere, Irungo ekonomiaren arloko eragileek eraturako foroan, alegia, norabide horretan lanean ari da.

- Nola ikusten duzu Irunen etorkizun ekonomikoa?

Krisi-zulo honetatik aterako gara, baina denbora beharko da eta argi eduki behar da garai onak igaro direla. Nik etorkizunari ez diot beldurrik. Euskal Herria beti izan da txiroa, baina sormenari esker beti aurrera egin du. Orain prestatu behar dugu kinka ekonomiko honetatik ateratzen garenean lehiakor izateko, garbi edukita administrazioarekiko gehiegizko menpekotasunaren garaiak amaitu direla.

- Zein izango da gure enpresa-ehuna?

Hozkailuetarako piezak ez ditugu ekoiztuko, baina bai agian aeronautikarakoak. Teknologia, aisialdia, turismoa... horiek etorkizun onekoak dira. Miramon Teknologi Elkartegia zabalduko da eta gure eskualdean instalazio berriak

edukiko ditu. Hau oso azpiegitura garrantzizkoa izango da.

- Garai berrietarako prestatua egoteko nolako hezkuntza behar da?

Enpresen gestio ereduak aldatzen ari dira. Ezin da lehen bezala zuzendu: jabearen edo zuzendariaren aginduak beteaz, eztabaidarik gabe. Orain elkarlanean aritu beharra dago, eta merkatu globalizatu honetako edozein tokitan lan egiteko prest egon.

Mondragon Unibertsitatean profil horretako gazteak formatzea dugu xede. Bidasoan Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza gradua eskaintzen dugu, Espainian dagoen lehena eta bakarra. Gazte ekintzaileak behar ditugu, eta enpresekin lan egiten duten hezkuntza-zentroak.

Luxio Ugarte,
Mondragon Unibertsitateko
Enpresagintza Fakultateko
irakaslea eta MIKeko ikertzailea



“Kinka ekonomiko honetatik ateratzen garenean lehiakor izateko prestatu behar dugu”

“Hozkailuetarako piezak ez ditugu ekoiztuko, baina agian aeronautikarakoak, bai”

Olaizola

immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 ● 20302 IRUN ● Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Hizkuntzak ikasten elkarlanean

Gu Geu egitasmoari esker 156 lagunek euskarazko, frantsesezko eta gaztelaniazko mintza praktikak egiten dituzte

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, badiako hiru herrietan erabiltzen diren hizkuntzetako mintza-praktikak egin ahal izateko, Gu Geu egitasmoa abian jarri du aurten. Mugi Hadi elkartearen lankidetzaz eta Betti Gotti zein Amicale Laique elkarteen laguntzaz, arrakasta polita erdietsi duen jarduera mar-txan da ikasturte hasieratik.

Guztira 156 lagunek parte hartzen dute 9 taldetan banatuta: frantsesezko 7 eta euskarazko eta gaztelaniazko bana. Astean behin bi orduko saio bat egiten dute elkarlanean hizkuntza maila hobetzeko. "Ikasteaz gain egitasmo honek badu beste xede nagusi bat: Irun, Hondarribia eta Hendaia ezagutzea", azaldu du Partzuergoko teknikari Javier Gonzalezek. "Hartara bisitak, txangoak eta bestelako jarduerak antolatzen dira; adibidez, Abbadiako gaztelura edo Hendaia txokolate fabrikara. Argazki muntaia ere egin dute, Emakumearen Astea kari".

Halaber, Gu Geu egitasmoaren beste ezaugarri nagusietako bat da talde bakoitzak dinamizatzaile baten laguntza daukela. "Haien lanak ere, hasieran, berebiziko garrantzia dauka, taldekideen artean konfiantza bultzatzeko ekintzak prestatzen dituelako. Helburua, ordea, pixkanaka taldearen kudeaketa taldekideek berek egitea da".

Aurrera begira, taldeen arteko elkarrekintza aurreikusi da. Dagoeneko argazki ibilaldia antolatuko duela iragarri du Partzuergoak.

Parte-hartzaileen artean badira hizkuntza ikasi nahi dutenak komunikazio tresna gisa erabili ahal izateko, baina badira agiri ofizialak eskuratzeko xedez dihardutenak ere. Profil horretako ikasleentzat Gu Geuk ikasketa tresnak jartzen ditu eskura; esate baterako, testuen ulermena, idazketa, gramatika eta entzumena hobetzeko euskarri informatikoan dagoen web gunea. Horrela, kalitatea irabaziz, irakaskuntza formalago eta akademiko baten osagarri bilakatu da Gu Geu.

Oso esperientzia aberasgarria

Miren Polo Betti Gotti elkarteko kidea euskarazko taldearen dinamizatzailea da. Astero taldekideekin Mondragon Unibertsitatean mintzatzeko biltzen da. "Oso pozgarria da euskaraz hitz egiteko gogoia duen jendearekin aritzea. Esperientzia polita eta aberasgarria da".

Taldean azterketak jomuga dituztenak badaude, baita garai batean hitz egiten zutenak baina gaur egun, inguru erdaldunaren eraginez, ezin erabiliz dabilzanak ere.



Frantsesa ikasten ari den talde bat Abbadiako gazteluan.



Euskarazko taldeko zenbait kide

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN



Iazko esperientzia pilotuko partaideak Plaiaundi bisiatu zutenean.

Zabaltzako litxarrerria kioskoak 40 urte bete ditu

Jabeak, Francisco Javier Olallak, laster batean erretiroa hartuko du



Zabaltza plazak hiru kiosko ditu: musikarena, 1903an eraikia Euskal Jaien kariaz, prentsarena eta litxarrerriena. 40 urte honetan, azken bi hauek dira plazaren nortasunaren bere-berezko elementuak.

Francisco Javier Olallaren aitari Udalak gozokiak eta jostailu txikiak saltzeko lizentzia esleitu zion. Orain dela hogeitamar urte semeak hartu zuen negozioaren lema. Laster batean erretiroa hartuko du.

Urte dexente igaro badira ere, kioskoak beti bezain koloretsu jarraitzen du, haur eta heldu lamineroen gozamenarako. "Pipak, gominolak, krispetak eta txikleak produktu izarrak ziren eta dira, oraindik ere", dio Francisco Javierrek. Produktuek izan duten aldaketarik nabariena bilgarrian bilatu behar da, lehen ia dena soltean saltzen baitzen; gaur egun berriz, ia dena paketetxotan. "Bai, gailetak ere bilduta saltzen dira. Ekoizleari erosoago gertazen zaio eta gainera higiena ziurtatzen du". "Aldatu den beste ezaugarrietako bat osagaiak dira; izan ere, Europako araudiari egokitzeko, kolorante artifizialak kentzen ari dira", azaldu digu Francisco Javierrek.

Jakina, modak ere bere eragina izaten du litxarrerrien mundu honetan. Telebistan marrazki bizidun berriak ematen hasi orduko *merchandising*aren makina martxan jartzen da, litxarrerrien apalategietako jaun eta jabe bila-

katuz. Bob Esponja, Hello Kitty, Gormiti eta abar haurren begietara ez ezik ahoetara ere iristen dira hainbat tankeratako gozoen bidez.

Modez gain, urtaroen arabera gorputzak mota bateko edo besteko plazer txikiak eskatzen ditu. Hala, neguan litxarrerriak eta txokolatea saltzen dira batik bat. Udan, ordea, izozkiak dira erregeak.

Eta krisiak eragina izan ote du?. "Bai, orain txokolatea edota gailetak bezalako produktuak bilgarri txikietan datoz, merkeago saldu ahal izateko. Gainera, lehen, ama batek bi haur bazituen, euro bana gastatzen zuen; gaur egun, ordea, euro bat bientzat!".

Hamar edo hamabi orduz lan egiten badu ere, Francisco Javier ez da kexu. Bere leihatilatik haurren poz aurpegiak ikusteak zerikusirik handia izango du, ezbairik gabe.

Kiosko berria Kolon ibilbideko zaharberritze lanak amaitu ondoren jarri zen. Beheko bi argazkietan, Francisco Javier Olalla bere goxokidendan.



Aitona-amonak, bezero onenak

"Litxarrerria bat zenbat eta handiagoa eta zenbat eta koloretsuagoa izan, orduan eta erakargarriago gertatzen zaie haurrei". Horixe umeei eskatzen dutena, baina gurasoek erosten al diete nahi dutena? "Gurasoak, eta batez ere amak, negoziatzen saiatzen dira; baina aitona-amonak, ez, horiek biloben gutziak asetzen dituzte tirabirarik sortu gabe. Halaxe izan da beti".



HORTZ-KLINIKA

Ramón Amantegui Ihargoyen
MEDIKU ESTOMATOLOGOA

INPLANTEAK ✓ PERIODONTZIA ✓ HORTZ-ESTETIKA

Lope de Irigoyen, 9 - Igoa. IRUN. Tel: 943 61 86 34. r.amantegi@euskalnet.net

MIGEL TABERNA
Peña kalea // Urdanibia Plaza (Mosku)
Tel.: 943621373

Pintxoak eta menuak

Korrika Txiki Irunen barrena



Ttipi-ttapa Korrika 18 martxoaren 24ko goizaldean Irundik igaro zen *Eman euskara elkarri* leloa zabalduz.

Gure hiriko hainbat elkarte eta tabernatan afariak antolatu ziren eta bapo jan ondoren parte-har-tzaileek gorputza pixka bat astindu behar izan zuten. Eskualdeko elkarte, erakunde nahiz enpresek kilometro bana erosi zuten euskararen aldeko lasterketa erraldoiaren alde. Irungo Mendizaleak lehenak izan ziren lekukoa hartzen, Usategietan. Bukieran Betti Gotti Euskara Elkarrekin Irungo eta Hendaiako AEKri luzatu zioten. Guztira 20 kilometroko ibilbidea egin zuen Txingudiko hiru herrietan barrena.

Korrika iritsi baino bi egun lehenago Irungo hainbat ikastetxetako ikasleek Korrika Txikia ospatu zuten hiriguneko kaleetan euskara aldarrikatuz.

Irudiotan, Korrika Txikia Irungo kaleetan barrena. Goian, Porrotx pailazoa haurrak aupatzen



Rosa Sánchez
Abokatua

Tel 943 632 740

Telekopia: 943 639 793

rosasanchez@despachoprofesional.net



Eskarne Ruiz de Arbulo

Zuzenbidean lizentziatua
Epaitegietako prokuradorea

Tel 943 635 073

Telekopia: 943 622 314

eskarne@eskarneprocuradora.com





Bazkide taldea, Emakumearen Astea dela-eta aurten egin duten ekitaldi batean.

Argoiak: emakumeak plazara

Argoi euskarazko hitzak grazia eta trebetasun handiko emakumea esan nahi du. Halakoxeak direla argi utzi dute Argoiak Kultur Elkar-terko andreak 30 urteko ibilbidean. Hasieran emakumea sustatzea xede zuen taldetxo bat zena, gaur egun 400 kide ditu eta Gipuzkoako ezau-garri hauetako elkarterik ekintzaileena bilakatu da.



1982an 30 emakumek Gipuzkoako E-txeoandreen Elkartearen ordezkariak eratu zuten Irunen, aurrerago Argoiak izango zena. "Aintzindari haiek familiari emanak bizi ziren eta formakuntzarako aukerarik gabeko emakumeak ziren", gogoratzen du Rafi Hernandez zuzendaritza batzordekideak. "Benetan ausartak izan ziren! Pentsa garai hartan etxetik irten nahi izate hutsak jasotako hezkuntzari aurre egin beharra zekarrela".

Larretxipi kaleko bizilagunen elkartearena izan zen aurreneko egoitza, baina laster Ama Miraritatoaren kalean topatu zuten independente izateko nahiak ase zien lokal bat. Han elkarlanean

ikasten zuten; bakoitzak zekiena partekatzen: ingelesa, pintura, joskintza... Victoriano Juaristi kaleko egoitza hurrengo urratsa izan zen. "Bai, jardueren kopuruak gora egin zuen: hitzaldiak antolatzen ziren, antzerki tailerrak, abesbatza, baita hainbat urtetan elkar-terko bere-berezko izan duen literatur lehiaketa ere", azaldu du Rafik.

Azken jauzia

Bertsolari Uztapide kaleko lokal dotorerera duela lau urte egin zuten mundantza, ongi merezita egin ere. Gaur egun ekintza anitz eskaintzen dira. "Jakina, jarduerak garai berriei eta emakumeen behar berriei egokitu egin dira", dio lehendakari dagoen Maria Eugenia

Iparragirrek. Ikastaroen taulari erreparatuta ez da harrizkekoa zuzendaritza batzordeak zailtasunak izatea proposamen berrietarako tokia eta ordua mol-datzeko. Euskara, frantsesa, ingelesa, informatika, meditazioa, pilates, eskulanak, haurrentzako masajea, yoga, oroimen gimnasia, tai-chi... eta beste hainbaten artean aukera daiteke. Urtean behin ematen den Argoiak Saria da Elkar-terko berriki abian jarri duen ekitaldi nagusietako bat. Aurten, urtean El Pilar ikastetxeko zuzendari egon zen Fermina Belokiri eman diote.

Erronka berriak

Emakumeen jabeakuntza helbururik behinena izaki, elkar-terko zeharka beste

funtzio sozial bat betetzen du. "Emakume adindu askok topagune baten beharra dute -azaldu du Maria Eugenia-. Harremanetarako topagune bat izatea guztiz onuragarria gertatzen zaie". Hain zuzen isolamendu kasuek gora egiten ari diren honetan, egoera hori pairatzen duten emakumeei irten-bide bat eskaintzea erronka berri bilakatu da Argoiak-entzat.

Bestetik, lehendakariak nabarmendu du tratatu txarren biktimak diren emakumeak ere elkar-terko laguntza bila hurbiltzen zaizkiela. "Ezbairik gabe, kasu hauek nola bideratu behar ditugun jakiteko formakuntza behar dugu".

Virginia Barreto

Makillaje profesionala

- ✓ Ezkontzak,
- ✓ Jaunartzeak,
- ✓ Ekitaldiak,
- ✓ Bodypainting,
- ✓ Argazki saiok...

www.virginabarreto.com
Twitter @virginmakeup
Facebook: Virgin Make up

Tel: 687454676



943641710
www.endanea.com

Jaitzubia Auzoa 40
Hondarribia
Jaitzubia
Elkartearen ondoan

Endanea, udaberri honetako lore eskaintzarik onena

- ✓ Lore aukera zabala,
- ✓ Prezioak
- ✓ Parkina
- ✓ Arreta eta erosotasuna

Zatoz eta gozatu kafetxo bat hartzen lore artean
Ordutegi berria: astelehenetik larunbatera
10 -14 eta 16 - 20. Jaiegunetan, 10 -14.



Super Amara BAT, inoiz baino hobeto



Goian, Teresa Errandonea, Malen Ruiz de Azua eta Olatz Arrieta.

Ezkerrean, Espainiako 2013ko junior taldeen arteko indoor txapelketan seigarren sailkatu den nesken taldea.

Bukatu berri den 2013ko indoor denboraldia, zalantzarik gabe, eskualdeko klubaren historiako hoberena izan da.

Atletismoaren denboraldiak betidanik bi garaitan banatu izan dira: indoor sasoiaren eta aire zabaleko sasoiaren. Abendutik martxora irauten dute indoor txapelketek, eta apiriletik abuztura arte izaten dira aire zabaleko lehiaketak. Azken urteotan, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea gogor azaldu da estatu mailan, baina orain bukatu berri den 2013ko indoor denboraldia, zalantzarik gabe, eskualdeko klubaren historiako hoberena izan da.

Urtarrilean, Sabadellen izandako Espainiako junior klubeen arteko txapelke-

tan neskek finalera sailkatu ziren, bai eta sailkapen nagusian seigarren geratu ere. Esan beharra dago sailkapen horretan atletismoaren proba guztiak kontuan hartzen direla; beraz, oso emaitza polita eskuratu zutela esan genezake.

Banakakoetan, arrakastarik handiena Baina banakako lehiaketetan izan dute benetan arrakasta izugarria Super Amara BATeko kirolariek. Hiru neska nabarmen izan dira argi eta garbi gure eskualdeko taldean, emaitzak aintzat hartuz gero. Bata Teresa Errandonea da, eta 60 metroko hesi-lasterketa egiten du. Adinari erreparatuta, aipatu behar dugu junior dela; baina bai kategoria honetan, bai seniorrean ere, Espainiako indoor txapelketan izan da aurten. Ezin dugu ahaztu pasa den urtean Espainiako marka hautsi zuela junior mailan.

BATEko beste bitxi bat Malen Ruiz de Azua da. Pertika-jauzian lehiatzen da,

eta, Errandonea bezala, junior da. Estatuko txapelketan ere izan da bere kategorian, eta gainera aurten Espainiako junior errekorra lortu du Antequeran egin den txapelketa nazionalan. Senior lehiaketan, ordea, bostgarren sailkatu zen.

Eskualdeko atletismoko hirugarren izarra Olatz Arrieta da. Olatzek etorkizuneko kategorian parte hartzen du, eta nahiz eta proba askotan fina den, azken boladan pentatloian ari da nabarmen izaten. Izan ere, Euskadiko senior errekorra hautsi du aurten eta Espainiako selekzioarekin ibili da nazioarteko topaketa batzuetan. Estatuko senior txapelketan 60 metroko hesi-lasterketan parte hartu zuen, eta zilarrezko domina irabazi zuen, hain zuzen Teresa Errandonearen atzetik sailkatuta.

Izar zerrenda luzea

Bidasoa Atletiko Taldeak beste bi Espainiako txapelketan izan ditu 2013ko indoor sasoiaren, biak ala biak gazteen

kategorian: Teresa Zaragueta altuera jauzian eta Tamara Perez 800 metroko proban. Baina klubaren dominen zerrenda, Espainiako txapelketetan, ez da hor bukatzen. Izan ere, Itziar Herrero 3.000 metrokoan, Juana Usabarrenak pisuan eta Juan Jimenezek 60 metroko hesi-lasterketan brontzezko metalak eskuratu dituzte beterranoen kategorian.

Horra hor emaitzak; baina Ibon Muñozek, Super Amara BATeko kirol zuzendariak, argitu duen moduan, "gure klubeko filosofia ez da goi mailako kirolariak lortzea, harrobia lantzea eta haurrak atletismoan zaletzea baizik. Kirolean hezi nahi dugu eskualdeko gazteria; horregatik, zortzi urtetik gorakoak hartzen ditugu. 140 lagun ditugu gure eskolan, eta federatuak 180 lagun dira guztira". Gure eskualdeko atletismo taldea Euskadin lizentzia gehien dituen kluba da: ez da makala! Gauzak ondo egiten dituzten seinale.

GB EVENTOS

Ekitaldion antolakuntza, osorik eta nahi orara

www.gbeventos.es

Enpresa ekitaldiak
Erakunde ekitaldiak
Gai baten inguruko ekitaldiak

Jai herrikoiak
Ezkontzak
Urteurrenak

Oscar Portugués
+ DJ *Bizarr*

Ekitaldiak zuk nahi duzun orara
Zer behar duzu?

WWW.CASATE EN HONDARRIBIA .COM



Irungo Txirrindulari Elkarte taldeen 2013ko denboraldirako argazkia.

Txirrindularien garaia iritsi da

Irungo Txirrindulari Elkarteak aurten bost talde izango ditu, eta lehendabiziko aldiz master 30 kategorian lehiatuko da, alegia, 30etik 39ra urte bitartekoenean.

Pasa den martxoaren 10ean Bidasoa eskualdeko txirrindularitzak hitzordu garrantzitsua izan zuen Atalaia Hotelean, Irungo Txirrindulari Elkarteak 2013ko denboraldirako dituen taldeen aurkezpena egin baitzuen. Bertan, hirurogei bat lagun bildu ziren, elkarteak Euskal Herriko errepideetan defendatuko duten hogeita hamar txirrindulariei txalo egitera.

Aurten Irungo Txirrindulari Elkarteak bost talde izango ditu, beste hainbeste mailatan banatuta. Bat trialsin modalitatean arituko da, eta beste laurak, errepideko txirrindularitza arruntean alebin-infantil, kadete, junior eta master 30 kategorietan.

Saso honetan, Irungo klubak berrita-

sun bat aurkeztuko du. Hain zuzen ere, lehendabiziko aldiz master 30 kategorian lehiatuko da, hau da, 30 eta 39 urte bitarte dituzten kirolarien mailan. Baina Txapelketetan ibiliko den jendeaz gain, Juanjo Garagarza Irungo Txirrindulari Elkarte lehendakariak aldarrikatu zuen bezala, "beste 120 bazkide ditugu federatuak, 18 eta 68 urte arteko zikloturistak direnak, eta hori guretzat oso garrantzitsua da, pixkanaka elkarte familia handi bat bilakatzen ari delako".

Denboraldiak zazpi hilabete irauten du, eta probak asteburuetan soilik egiten dira. Martxoaren lehenengo igandean hasi zen ofizialki, eta irailaren azkenengo igandean bukatuko da. Egute-

giak Euskadiko Txirrindularitza Federazioak egiten ditu, eta Juanjo Garagarzak argitu duen moduan, "klubek ez dugu zerikusirik kontu horretan".

Nahiz eta lehiatzeko taldeak izan, Irungo Txirrindulari Elkarte helburu nagusia ez da ahalik eta txapelketa gehien irabaztea, edota profesional mailan aritzeko txirrindulariak prestatzea. Javier Uranga elkarte kirol zuzendariak azaldu duenez, "gure izaera haurrak txirrindaren munduan hezte da, eta horretarako Irungo hainbat eskolatan txirrindarekin zerikusia duten ekintzak eta jolasak antolatzen ditugu".

Txirrindaren kultura sustatu

Irungo erakundeak gehienbat herrian eta eskualdean txirrindaren inguruko kultura sustatu nahi du; izan ere eta Javier Urangak adierazi du martxotik urrira igandero irteerak antolatzen direla horretarako. "Taldea ugari apuntatzen dira ordutegi ezberdinetan, eta denetariko ibilbideak daude. Urtearen

bukaeran sariak banatzen ditugu proba gehienak egiten dituztenei".

Taldeen aurkezpenean, Garagarzak Irungo herrirako txirrindarekin lotura duen proiektu berri baten asmoa buruan zuela aditzera eman zuen. Ideia da trialsin pista bat eraikitzea Irunen, eta, jakinarazi zuenez, "Udalak begi onez hartu du egitasmoa: ea egia bihurtzen den".

Halaber, Irungo Txirrindulari Elkarteak lasterketak antolatzen ditu gure errepideetan, eta hori ere lan nekeza da. Elitiko eta 23 urtetik beherako mailan San Pedro Klasikoa prestatzen du, Juanma Garate zikloturista proba ere egiten du, eta trialsin modalitatean Euskadiko Txapelketarako baliagarria den lehiaketa ere Irunen antolatzen du. Argi dago Bidasoa eskualdean txirrindularitzarako afizioa badela; ezbairik gabe, elkarte xarmangarri honexek du errua nagusiki.



**Mozorroak eta osagarriak
AU PALAIS DE CRISTAL**
Su artifizialak eta euskal jantzi tradizionalak
Palais du Cristal. 16 Rue du Port. Hendaia. +33 (0) 559 483758



Zugan bizi

Uda da eta bero dago.

Zure irudia errekan islaturik ikusi dut, atsegin dut. Lagun dezente gaude bildurik; nahiz eta denei begiratu, zure irribarra bakarrik ikusten dut. Kilimak sentitu ditut sabelean. Zoriontsu naiz, ametsetan bezalaxe. Azkenean bai, bakarrik gaude. Taupadak askatzen zaizkit barrenean. Zeruan gaude, zero zati batean, biak bat eginik. Orain bai, orain arima guztiak xurgatzeko gai naiz.

Udazkena da. Fresko dago.

Urruntzen zoaz. Gero eta gutxiago ikusten zaitut eta ikusten zaitudanean, urduritasunez, bizkarra eman dizut. Damaturik nago, baina bizitzak ez du zentzurik damutu ezean... Zergatik joan zara nire albotik? Zer egin dut? Beti antzeko galderak errepikatzen dira nire barrenean. Zure hitzen falta sumatzen dut, eta gaur ere amestu dut elkarrekin ginela, aske ginen leku batean. Nekatuta nago. Hostoak erortzen ari dira, munduaren nekea hostoetan balego...

Negua da; hotz dago.

Eguzki txuriak negu gorria adierazi digu eta bat-batean, hantxe zaude zu, niri so. Baina ez dago hitzik, ezta iraganeko begirada goxo hura ere. Noiz arte iraungo du une honek? Zalantzen mina, gauetan lo ezina... Nik hutsetik hasi nahi dut. Baina ez dago irtenbide magikorik, ezta atzerantz itzultzerik ere.

Udaberriak tenperatura epela ekarri du.

Harrigarria da, baina gero eta gehiago ikusten zaitut. Irribarre eta begirada goxoak itzuli dira. Nire alboan egon nahi duzu. Gerta daitekeenaren beldur naiz. Ez dut berriro minik eduki nahi, egunak zu gabe zorigaitzak baitira.

Non egon ote zinen ni sufritzen ari nintzen bitartean? Egun luze haietan agertu gabe...

Hala ere, zurekin eta zugan bizi nahi dut. Iragana atzean utzita eta orainari eskutik helduta. Goazen aurrera!

IRATXO SARASOLA 4. A
TOKI ALAI BHI

Marketing

WHATSAPP, LINE, VIBER EDO SPOTBROS?



Berehalako mezularitza puri-purian dago: horra hor Whatsapp, horren adierazgarri. 300 milioi erabiltzaile baino gehiago, eta sekulako datu-trafikoa, konpainia bere "mehatxua" betetzera daramana, hemendik aurrera 0,89 € urteko ordaindu beharko

baitu izen-emaile bakoitzak.

Badakigu ez dela asko, kontuan hartuta SMS mezuetan zenbat aurrezten dugun; baina hala ere "bezero" askok eta askok alde egin dute. Nora, baina?

Line da alterantiba nagusia (halakoetan erabiltzaileen kopuruak berebiziko garrantzia dauka). Gainera, emotikono ederrez gain, mahai gaineko ordenagailu batean ezarri eta bertatik ere elkarreragin daiteke.

Viber da zabalduenetariko beste bat; zeren eta mezuez gain aplikazioaren beste erabiltzaileei ere doako deiak egin diezazkiegulako, betiere wifi sarea edo 3G baldin badaukagu.

Baina gure kuttuna, ez bairik gabe, SpotBros da, batik batik Euskadin garatutako aplikazio bat delako. Gainera, lehiakideek berdina eskaini ez ezik, sistema seguruago batean ere egiten du.

Funtzio jolasgarriak ere baditu; hala nola Shouts, oihu delakoak, 1'5 km-ko erradio batean kokatutako beste erabiltzaileei bidal dakizkiena, eta Spots delakoak, gai zehatz bati buruzko foro publikoak.

Eta zuk, zeinen alde egin duzu?

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

Gurpildun lilura

Tartetxo bat duten bakoitzean scooterra hartu eta Ficobako pistara abiatzen dira zilipurdiak egitera. Puri-purian dagoen kirol honek zale asko ditu gure eskualdean. Aitor Palencia eta Iker eta Inge Txapartegi anaiak puntako ordezkari irundarrak dira. HS2 klubaren eskutik lehiaketetan parte hartzen dute.



Ficoban topatu ditugu *flair* eta *back flip* motako txiribueltak airean egiten, aurpegiari gozamina igartzen zaiela.

Txikitatik hasi ziren kirol honetan eta laster grinak harrapatu zituen. Gaur egun lehiaketetan eta erakustaldietan parte hartzeko aukera dute. Aitorrek (16 urte) Bergarako Laino skate parkeko norgehiagoka irabazi zuen, eta Ikerrek (14 urte) Bartzelonako Bullpark Scooter Jam erakustaldian trebeenekin batera esku hartu zuen.

Hondarribiko HS2 klubak materiala ematen die, eta gaztetxo hauek, ilusioa eta gogo guztia. Eman ere, ahal duten denbora libre guztia entrenatzen ematen dute, ikusleei tri-pak inarrosiarazten dizkieten txiribueltak perfektionatzeko. "Gure helburua profesionalak izatea da", diote argi eta garbi. Miresten dituzten xtrema kirol honetako gailurrean dabilzanak segituan gogora etorzen zaizkie, hots, munduko hoberenak: Matty Ceravolo, Ryan Williams, besteak beste.

Horien mailara iristea ametsa denez, bada, eskurariagoa den beste bat aipatzen dute. "Buuuff!! Izugarria izango litzateke Australiako eta Estatu Batuetako Woodward skate parke erraldoietan scooterrarekin aritzeko parada izatea!".


Agur esan orduko, hirukotea zementoaren gainean akrobaziak egiteari lotu zaio.



Aitor Palencia eta Iker & Inge Txapartegi Ficobako skate parkean.

Gipuzkoako skate parkeak

Arrasate. Kiroldegian
Arrasate. Ospitalearen ondoan
Lazkao. Euskadi plazan
Legazpi. Urtatza auzoan
Bergara. Kiroldegian
Lasarte
Hernani. Pana parkean
Irun. FICOBAn
Hondarribia. Kirol kaian
Lezo. Erakustazokaren ondoan
Errenteria
Donostia. Intxaurren. Txaparrere parkean
Donostia. Anoeta estadioan
Donostia. Pagola auzoa, ikastetxe alemanetik hurbil
Orio. A8, Orio-Zarautz irteeran
Zarautz. Argiñano jatetxean
Getaria. Kiroldegiaren ondoan
Eibar. Sautsi auzoan
Usurbil. Parkean



TXINGUDI Ikastola

50. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK:

✓ 2013-05-26, igandea:

17:00etan: 50. urteurrenaren abestiaren aurkezpena AMAIAN

✓ 2013-06-01, larunbata:

IKASTOLA EGUNA: kalejira Irunen barrena, bazkaria eta animazioak

Jaitzубia z/g. 943 667055-667050

Txingudi Ikastola

**TXINGUDI
IKASTOLA**



Goiko marrazkiaren egilea: Oier Rios (2. A). Eskuinekoa 5. Fko ikasleen lana da.

ASIAKO LIZTORRA

Asiako liztorrak (Vespa Velutina) Txin du jatorria. Lehendabizikoz, Bordeleko portuan agertu zen, egurra zeraman itsasontzi batean. Handik Ipar Euskal Herrira pasa zen eta ondoren, 2010ean, Hego Euskal Herrira, Irunera, hain zuzen.

Liztorra izateko nahiko handia da: 30mm inguru luze da. Bertako erle arrunta (Apis Mellifera) baino hiru aldiz handiagoa. Habiak zuhaitzetan jartzen ditu, lau eta sei metroko altueran. Pertsonentzat ez da arriskutsua; bai ordea, erleentzat. Izan ere, horiez elikatzen da nagusiki. Udazkeneko fruitu onduak ere oso gustuko ditu.

Dirudenez, oso erasokorra da eta halako 30 liztorreko talde batek 30.000 erle hil ditzake hiru orduan. Normalean erlauntzaren kanpoaldean jartzen dira bakarka edo taldeka, eta zain egoten dira erleak polena jasotzetik noiz etorriko. Une horretan erleei gehiago kostatzen zaie mugitzea eta orduan erasotzen dituzte. Erleak liztorrak sumatzen badituzte ez dira habiatik ateratzen, ez dute jaten eta gosez hiltzen dira. Asiako erleek badute liztorraz babesteko mekanismorik, baina bertako erleek ez dute oraindik ikasi beren burua defendatzen.



bidasoaldia.com

Bidasoa Eskualdeko Egunkari Digitala

- Gaurkotasuna
- Aisialdia eta Kultura
- Kirolak
- Iritzia
- Erreportajeak
- Elkarrizketak
- Zerbitzuak

Nola hezi: eskuak zabalik ala mehatxatuz?



Kuttun Aholkularitza Psikopedagogikoko kideok hileroko zuekin izateko asmoa dugu orrialde honetan. Baina... zeren inguruan jardungo dugu? Alde batetik, psikologia, pedagogia edo zuzenean hezkuntzarekin zerikusia duten gaiak buruz idatziko dugu. Gaur egun hezteko eredu berriak behar ditugu eta espazio hau erabiliko dugu zenbait gai psikologikoz edo pedagogikoz aritzeko. Gogoeta esparru berri bat ireki nahi dugu hezkuntza eredu berri, positibo eta praktikoa bultzatzeko. Haur eta gazteen errespetua bideratzen duen hezkuntza eredu berria landu eta aztertu nahi dugu, helduok errespetua erakutsiz eredu izan, haur eta gazteen errespetua jasotzeko.

Behatz erakuslea luzatuz edo kooperazioa bideratuz hez ditzakegu haurrak eta gaztetxoak.

Haur eta gazteak heztea ez da beti erraza, gogoeta eta galdera asko sorrazten dituen ikasketak da. Baina ohartzen ez bagara ere, beti ari gara gure inguruko haur edo gazteak hezten. Ezer egiten ez badugu ere, hezkuntza eredu bat ematen ari gara; beharbada haur edo gazteak garrantzitsuak ez direla adierazten, edo gai batzuei buruz ez dela hitz egin behar baieztatzen. Hezteko bi modu daude, gure ustez:

BEHATZ ERAKUSLEA LUZATUZ: mehatxatuz, beldurra zabalduz, oihu eginez, zigortuz, salatuz, aurpegiatuz...

ESKUAK ZABALIK: sentitzen duguna azaldu edo gustuko ez duguna deskribatuz, erreferentzia argiak emanez, empatia eta kooperazioa bideratuz

ZEIN HEZIKETA EREDU ESKAINI NAHI DIEGU GURE HAUR ETA GAZTEEI?

Non kokatzen garen eta non kokatu nahi dugun aztertuko dugu, bi eredu ezberdin hauen laguntzaz. Heztea ez da erraza, eta gaur egungo helduok jaso dugun eredu batik bat "behata luzatuz" izenez bataiatu duguna izan denez, gaiak gogoeta egiteko eta eredu berriak aztertzeko lagungarri izango dugu orrialde hau.

Bestalde, elkarren artean harremanetan jarri ahal izateko esparru bat zabaltzeko asmoa dugu. Atal horretan, jorratzen ari garen gaiari buruzko galderak erantzun ditugu. Beraz, nahi duzuen galdetu eta guk ahal dugun neurrian erantzun dizuegu. Helbide honetara bidali edo Iruneroren web gunearen bitartez egin dezakezue:

kuttun@kuttun.net

MAPI URRESTI ORTIZ

KUTTUN aholkularitza psikopedagogikoa

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Eskura ezazu Irunero hamabost egunean behin zure auzoko hainbat gunetan



Lana



AISIALDIKO MONITOREAK
Martxo eta maiatza bitarte, udalekuak eta kanpalekuak antolatzen dituzten enpresek begiraleak kontratazeko deialdi zehatzak egiten dituzte. Begiraleak non behar dituzten jakiteko, jo ezazu Gazte Informazioaren web orriko lan atalera:
www.irun.org/iaazte



Lehiaketak



NOLA IKUSTEN DUZU ZURE BURUA? NOLA JANZTEN ZARA? ARGAZKI LEHIKETA
Nori zuzendua: 12-18 urte bitarteko gazteei.

Zeri buruz da? Har ezazu zure argazki kamera eta azaldu nahi duzuna. Lan orijinalak eta argitaragabeak izan behar dute. 3na argazki onartzen dira. Epea: apirilak 19.
museodeltraie.mcu.es



MIKROBIDEOEN LEHIKETA
Gaia: Europako krisia gazteen ikuspuntutik. Baldintzak: 12-20 urte bitartekoentzat, gutxienez 3ko taldeak eta gehienez ere 5 minutuko lanak. Izena emateko epea: apirilak 15. Lana bidaltzeko epea: maiatzak 31.
limitsforum.blogstop.com.es



Ekintzak

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN
Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerikan, Asian eta Afrikan hain zuzen ere. Esperientzia hiru hilabetez, uztailetik urrira arte izango da. Bete beharreko baldintzak:
1.- 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza izatea.
2.- 1983 eta 1993 artean jaio izana, bi urte horiek barne.

3.-Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menperatzea. Izena ematea: martxoaren 28tik apirilaren 27ra. Martxoaren 28tik aurrera, Eskaera Internet bidez bideratu ahal da.
[.gazteukera.euskadi.net](http://gazteukera.euskadi.net)



Aisialdiko hezitzaile agiria

Aisialdiko monitorea izateko diploma bat behar da eta aitortpen ofiziala daukaten Aisialdi Eskoletakoren batek antolatutako ikastaroa gaindituz lortzen da. Heziketa-lana egitea aukeratu dutentzat da ikastaro hau.



BETEKIZUNAK
18 urte beteak edukitzea edo ikastaroan matrikulatutako urtean betetzea.
IKASTAROA
Titulua lortzeko, zati teorikoa eta zati praktikoa landu behar dituzu; horrez gain, egindako praktiken memoria aurkeztu behar duzu. Informazio gehiago: gazteukera.web. Bertan titulu mota guztiak, legedia eta Euskadin ofizialki aitortuta dauden Aisialdiko Eskolak zehazten dira.



IRUN UDAN 2013

Foru Aldundiak, beste entitate batzuek eta Irungo Udalak udaoro jarduera interesgarriak antolatzen dituzte 3 eta 18 urte bitarteko ume eta gazteentzat.

Zetoz eta gozatu!!

Hona jarduera mota guztiak:

- ▶ Udaleku Irekiak
- ▶ Udako Udalekuak
- ▶ Kirol Ekintzak
- ▶ Ikastaroak
- ▶ Hizkuntzak atzerrian
- ▶ Lankidetzak
- ▶ Elkartasun Brigadak eta Bidaiak
- ▶ Boluntarioria eta hizkuntzak ikastea



Informazio guztia: igazte@irun.org

EKAR Nafarroa hiribidea, 7 - IRUN **943 628 333**
www.teleinmo.es

teleinmobiliaria **Tele inmobiliaria**

Erosteko, saltzeko edo alokatzeko modurik eraginkorrena.

Uztailaren 7ra arte
Nestor Basterretxea
Menchu Gal gelan



Bisita gidatuetan parte hartzeko, SAC-HAZ era deitu behar da.

Apirilaren 28ra arte
Trenbidearen 150. urteurrena
Amaia KZ

Trenbidea Irunera lehen-bizikoz iritsi zela 150 urte betetzen dira aurten. Gertaera garrantzitsu hura gogoratzeko erakusketa bat antolatu da, baita hainbat ekitaldi ere, urte honetan zehar gauzatuko direnak.

Erakusketa egunak: asteartetik igandera.

Apirilaren 6an
Café Irun
Kontzertua

Gaueko 9etan, MANDRÁ-GORA NEGRA eta ZEIT-GEIST taldeen kontzertua.

Apirilaren 7an
Zabaltza plazan
Dantza



Mutxikoak eta dantzak, 12:00etatik 13:00etara, Meakako Adixkideak tal-

Artistaren 100dik gora lan ikusgai Helena Elbustoren zuzendaritzapean apailatu-tako erakusketa honetan. Proiektua aurrera eramateko, Idurmendieta bere baserriko artxiboa ezagutzera ematea onartu du. **Ordutegia** Ostiraletan eta larunbatetan, 18:00- 21:00. Igande eta jai egunetan, 11:30- 13:30.



Diasso Museoko ekintzak



Apirilaren 14ra arte
Egiptoko Animalia Sakratuak
Diasso Museoa
 Erakusketa hau Nafarroako Unibertsitateko talde batek 2009tik 2012ra bitartean gauzatu duen lanaren ondorioa da eta, berari esker, 2.700 urtetik gorako animalia-egindako ikerketa-lanak azaltzen dira.

Aste Santuko egitaraua

Apirilak 3
 Egiptoko misterioak. Haurrentzat
Apirilak 4
 Tessellae. Mosaiko tailerra. Haurrentzat
Apirilak 5
 EUREKA! Antzinako asmatzaileak. Familientzat.
Apirilak 6
 Xantalen nekropolia. Denontzat. Zine maratona La momia pelikula. Haurrentzat
Apirilak 7
 Abentura: Meatze tren. Denontzat.

deak antolatuta.

Apirilaren 12ra arte
Irun Faktory-n
Erakusketa

Jarriozu aurpegia tailerlean egindako lanen erakusketa Juan Antonio Loidi kaleko 8. zenbakiko egoitzan. Ordutegia: Astelehentetik ostiralerara 18:00 - 20:00.

Apirilaren 9an
Udal Liburutegian
Idazle tailerra
 19:30ean, Edward Rosset-en eskutik.

Apirilaren 9tik 21era
Euskadiko Kutxan
Erakusketa



Nicolas Guerendiain Irungo Errepublikarren elkarteak antolatuta. Astelehentik larunbatera, arratsalde irekita; igande eta jaiegunetan, goizez.

Apirilaren 14an
 12etan, San Juan plazan, Errepublikarren Jaia. txalaparta, agurra eta bandera jasotzea.

Apirilaren 10ean
Udal Liburutegian
Ipuinak
 17:30ean, Ipuin Kontalarien saioa haurrentzat, euskaraz. Belen Azkaratek *Izarrekin amets eginez*

ipuina kontatuko du.

Apirilaren 11an
Udal Liburutegian
Liburu foruma
 19:00etan, Sophie Fontanel-en *El deseo* liburua.

Apirilaren 12an
Tunk aretoan
Kontzertua
 22:00etan, Irun Zuzenean programazioaren barruan, GUADALUPE PLATA + SACCO taldeen kontzertua. Sarrera: 10 euro, alde aurretik erosiz gero, eta 15 euro leihatillean.

Apirilaren 12an
Amaia KZn
Zine Kluba
 20:00etan, *Zinema musika agertokira* zikloaren barruan, *Un viaje al Edén* pelikula emango da. Zuzendaria: Rax Rinnekangas

BAKAILAUA DASTA EZAZU



Benito Lertxundi Irunen



Apirilaren 13an, 20:00etan, Amaia KZn, Benito Lertxundi-
 ren eta bere taldearen kontzertua *Droimenaren oraina* diskoaren aurkezpena.
 Sarrera: 20 euro.
 Sarreraren salmenta:
 - Kutxanet
 -Leihatillean kontzertuaren egunean bertan
 -Luis Mariano plazako turismo bulegoan.

Dumboa

Fruta-dendak



Dumboa fruta-dendak Irunen

San Pedro kalea (Dumboa)
Fermin Calbeton, 1
Puiana, 26
Luis de Uranzu, 3-5 (San Migel)
Alfonso Morales kalea (Pio XII)

20

URTEURRENA

Eskerrik asko gure
bezeroei, gugan
konfiantza
edukitzeagatik

**DENDA BE-
RRIA**
Alfonso
Morales

**KALITATE APARTA ETA
PREZIO BIKAINA**

ESKAINTZAK

- ▲ Txanpinoiak: 0.79€ azpila
- ▲ Zuku-laranja apartak: 0.99€ 2 kg-ko sarea
- ▲ Laranja apartak, jateko: 0.59 €
- ▲ Golden sagar apartak: 0.99 €
- ▲ Kanarietako platanook: 1.25 €
- ▲ Kalabazina: 0.99 €
- ▲ Letxugak: 2 ale, 0.90 €
- ▲ Leka apartak: 1.79 €

HARAGIA:

- ▲ Txerri txuletak: 4.50 € kg
- ▲ Burualdeko txuletak: 3.50 € kg
- ▲ Oilasko izterrak: 1.50 € kg
- ▲ Oilasko bularkia: 4.95 € kg
- ▲ Idi-entrekot aparta: 10.90 € kg
- ▲ Txekor isatsa: 6.90 € kg
- ▲ Untxi aparta: 4.50€ kg
- ▲ Txerri saiheski haragitsua: 3.90 € kg